**2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA ETA PALEONTOLOGIKOA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022**

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 336700 PATRIMONIO ARQUEOLÓGICO Y PALEONTOLÓGICO

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Programa honen bidez gauzatutako jarduerarekin zerikusia duen guztia arautzen duen arau esparrua Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea da. Lege horrek, eskumen eremuari buruzko 3. artikuluan, ezartzen du foru erakundeei dagokiela bakoitzari bere lurralde historikoan:

a) Euskal kultura ondarea kontserbatzeko, hobetzeko, zaharberritzeko edo, hala badagokio, hondeatzeko arauak garatzea eta gauzatzea.

b) Babestutako kultura ondasunen gaineko esku hartzeak baimentzea, lege honetan ezarritakoaren arabera.

c) Euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunetan egindako jarduketak ikuskatzea, lege honetan ezarritakoaren arabera.

d) Nahitaezko txostena egitea aurri deklarazioaren espedientea ebatzi aurretik.

e) Euskal kultura ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko sustapen neurri ekonomikoak bultzatzea.

f) Euskal kultura ondarea mantentzeko, hobetzeko eta sustatzeko zerga pizgarriak arautzea.

g) Lurralde historikoan kokatutako kultura ondarea hedatzea.

h) Lege honetan berariaz aitortutako gainerako eskumenak.

Foru Aldundiak arkeologiaren kudeaketan duen eginkizunak Lurralde Historikoen 27/1983 Legearen 7. artikuluak ekarritako legezko eskumenei erantzuten die. Horrek, foru organoei ematen die erakunde komunen arauak garatzeko eta gauzatzeko eskumena, arlo hauetan: kontserbazioan, hobekuntzan, zaharberritzean, edo hala badagokio, monumentu eta arkeologia ondare historiko artistikoaren indusketan. Arau horiek, berriki ezarri den Euskal Kultura

### I. MEMORIA

El marco normativo que ordena todo lo relacionado con la actividad ejercida a través de este programa, es la Ley 6/2019, de 9 de mayo de Patrimonio Cultural Vasco, la cual en su artículo 3 referido al *Ámbito competencial*, establece que *"corresponde a las instituciones forales en sus respectivos territorios históricos:*

a) El desarrollo normativo y ejecución de la conservación, mejora, restauración o, en su caso, excavación del patrimonio cultural vasco.

b) Autorizar las intervenciones sobre bienes culturales protegidos, de acuerdo con lo establecido en la presente ley.

c) Inspeccionar las actuaciones realizadas en bienes integrantes del patrimonio cultural vasco, de acuerdo con lo establecido en la presente Ley.

d) Realizar el informe preceptivo previo a la resolución del expediente de declaración de ruina.

e) Impulsar las medidas económicas de fomento para la conservación y restauración del patrimonio cultural vasco.

f) Regular los incentivos fiscales destinados al mantenimiento, mejora y promoción del patrimonio cultural vasco.

g) Divulgar el patrimonio cultural localizado en el territorio histórico.

h) Las demás competencias reconocidas expresamente en esta ley."

El papel de la Diputación Foral de Álava en la gestión de la Arqueología responde a las competencias legales derivadas del artículo 7 de la Ley 27/1983, *de Territorios Históricos*, que otorga a los órganos forales el desarrollo y la ejecución de las normas de las instituciones comunes en *conservación, mejora, restauración o, en su caso, excavación del Patrimonio Histórico Artístico Monumental y Arqueológico,* luego refrendadas y desarrolladas por la Ley 6/2019, de

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA ETA PALEONTOLOGIKOA

Ondarearen 6/2019 Legean berretsi eta garatu dira.

Aurrekontu programa hori kudeatzen duen administrazio unitatea Museo eta Arkeologia Zerbitzua da.

Eskumen horien esparruan, lortu beharreko funtsezko **hiru helburu** daude ondare arkeologiko eta paleontologikoari dagokionez:

1. **Araudia garatzea eta kudeaketa publikoa gauzatzea**, lege esparrua aplikatuz haren kontserbazioa bermatzeko.
2. **Arabako Foru Aldundiak berak garatutako ondarea ikertzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko programak** bultzatzea eta sustatzea.
3. Jarduera horiei **laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea**, beste toki erakunde batzuek, erakunde zientifikoek, ikerketa taldeek edo norbanakoek sustatzen dituztenean.

**1. HELBURUA Arabako ondare arkeologikoa eta paleontologikoa kudeatzea**

Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren funtsezko zereginetako bat da, eta BIBAT Arabako Arkeologia Museoaren talde teknikoaren ardura da hura garatzea.

Horri dagokionez, funtsezko bi jarduera multzo daude:

- Alde batetik, txosten arkeologikoak, hainbat obra eta proiektuk arkeologian izan dezaketen eragina zehazteko eta ondarea babesteko hartu beharreko neurri aringarriak ezartzeko egiten direnak.

- Eta, bestetik, profesional eta ikertzaileei emandako baimenak, mota guztietako jarduera arkeologikoak egin ditzaten, bai aurreko txostenetatik datozenak, bai ikerketa orientazio hertsiko proiektuetatik datozenak (horrez gain, jarduketa arkeologikoaren kudeaketarekin zerikusia duten beste jarduketa batzuetatik datozenak, hala nola haiek finantzatzeko dirulaguntzak ematea).

**2. HELBURUA Ondare arkeologikoa eta paleontologikoa ikertzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko**

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 336700 PATRIMONIO ARQUEOLÓGICO Y PALEONTOLÓGICO

*Patrimonio Cultural Vasco*.

La unidad administrativa que gestiona este programa presupuestario es el Servicio de Museos y Arqueología.

En el marco de estas competencias, existen **tres objetivos fundamentales** a alcanzar en lo referente al Patrimonio Arqueológico y Paleontológico:

1. **Desarrollar la normativa y ejecutar su gestión pública** en aras de garantizar su conservación en aplicación del marco legal.
2. Impulsar y promocionar los **programas de investigación, conservación y difusión patrimonial desarrollados por la propia DFA**.
3. **Apoyar técnica y económicamente** esas actividades cuando son promovidas por otras entidades locales, instituciones científicas, equipos de investigación o particulares.

**OBJETIVO 1. Gestionar el Patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava**

Es una de las labores fundamentales del Servicio de Museos y Arqueología y su desarrollo es responsabilidad del equipo técnico del BIBAT-Museo de Arqueología de Álava.

Existen a este respecto, dos bloques de actividades fundamentales:

- Por un lado, los informes arqueológicos emitidos para determinar la posible afección arqueológica de diversas obras y proyectos y establecer las medidas paliativas a adoptar para la protección del patrimonio.

- Y por otro, las autorizaciones concedidas a profesionales y personas investigadoras para realizar todo tipo de actuaciones arqueológicas, derivadas tanto de los informes anteriores como vinculadas a proyectos de estricta orientación investigadora (además, de otras actividades derivadas y relacionadas con la gestión de las actuaciones arqueológicas, como son la concesión de subvenciones para su financiación).

**OBJETIVO 2. Impulsar y promocionar proyectos propios de DFA de investigación, conservación y difusión del**

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA ETA PALEONTOLOGIKOA

**AFAren proiektu propioak bultzatzea eta sustatzea**

Arabako Foru Aldundiak kultura ondasun arkeologikoak, bereziki kategoria berezikoak, kontserbatzeko eta zabaltzeko zuzenean sustatzen dituen proiektuei jarraipena ematean datza jarduera.

**2.1 ekintza. Iruña-Veleia. 2010-2020 Plan Zuzentzailea.**

Iruña-Veleia izeneko ikerketa proiektuari amaiera eman zaio. 2010-2020 Plan Zuzentzailea, Julio Núñez Marcén EHUko irakasleak zuzendu duena, honako jarduketa hauekin:

- Macellumaren aurriak eta hegoaldeko atearen inguruko harresia kontsolidatzeko lanak amaitzea.
- Proiektuaren azken memoria idazteko azterlan osagarriak eta koordinazio lanak amaitzea.
- Emaitzak jendaurrean aurkeztea.

Gainera, aztarnategian etorkizunean jarduteko **proposamen berri** bat idatzi da, 2022-2025 aldirako, Arkeologia Museoko teknikarien eskutik, Ideka-21 enpresaren kanpoko aholkularitzarekin.

Proposamen hori garatzeko, Europako Next Generation funtsak, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta AFAren funts propioak daude. Horri esker, hainbat jarduketa garatu ahal izan dira lau ardatz nagusitan:

- Ikerketa: prospekzio geomagnetikoko kanpaina estentsibo bat jarri da abian (6,5 ha-ko azalera duen eremu bat), aireko argazkien analisiarekin eta LIDAR teknikarekin osatua, egitura arkeologikoak hautemateko; finkatu beharreko harresiaren zatiaren aurretiazko irakurketa estratigrafikoa egin da Next Generation funtsekin, eta hainbat material arkeologiko garbitu, siglatu eta fotografiatu dira.
- Kontsolidazioa: harresiaren mendebaldeko zatia kontsolidatzeko obren gauzatze proiektua idatzi

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 336700 PATRIMONIO ARQUEOLÓGICO Y PALEONTOLÓGICO

**patrimonio arqueológico y paleontológico**

La actividad se centra en dar continuidad a los proyectos que promueve directamente la DFA para la conservación y difusión de Bienes Culturales arqueológicos, especialmente los de Categoría Especial.

**Acción 2.1. Iruña-Veleia. Plan director 2010-2020.**

Se ha dado conclusión al proyecto de investigación denominado *Iruña-Veleia. Plan Director 2010-2020*, que dirigía el profesor de la U.P.V., Julio Núñez Marcén, con las siguientes actuaciones:

- Finalización de los trabajos de consolidación de las ruinas del macellum y de la muralla en el entorno de la puerta sur.
- Conclusión de los estudios complementarios y de los trabajos de coordinación para la redacción de la memoria final del proyecto.
- Presentación pública de los resultados.

Además, se ha redactado una **nueva propuesta** para actuación futura en el yacimiento, con el horizonte temporal 2022-2025, a cargo del personal técnico del Museo de Arqueología con el asesoramiento externo de la empresa Ideka-21.

Para el desarrollo de dicha propuesta se cuenta con fondos europeos Next Generation y subvención del Gobierno Vasco y fondos propios de la DFA. Ello ha posibilitado el desarrollo de diversas actuaciones en cuatro grandes ejes:

- Investigación: se ha puesto en marcha una campaña extensiva de prospección geomagnética (un área de 6,5 ha de superficie) complementada con el análisis de fotografía aérea y LIDAR para detectar estructuras arqueológicas; se ha realizado la lectura estratigráfica preliminar del tramo de muralla a consolidar con los Fondos Next Generation y se han lavado, siglado y fotografiado diversos materiales arqueológicos.
- Consolidación: se ha redactado el proyecto de ejecución de las obras de consolidación del tramo

da; macellum-a kontserbatzeko eskuliburua; landaredia garbitzeko lanak egin dira; eta aparkalekua egokitu da.

- Interpretazioa: 2010-2020 Plan Zuzentzailearen memoria formatu digitalean amaitu eta argitaratu da, eta hainbat ilustrazio egin dira dauden egitura arkeologikoak hobeto ulertzeko.

- Hedapena eta programa soziala: aztarnategirako komunikazio plan bat idatzi da eta marka irudi berri bat sortu da; herritarrek parte hartzeko prozesu bat garatu da, aztarnategiak inguruko herrietan duen irudia hobetzeko eta haren identifikazioa hobetzeko; gune horietako biztanleen artean zabalkunde ekintza batzuk garatu dira; interpretazio baliabideak berritu dira eta harrera espazioa hobetu da.

Urtean zehar, gainera, jendearentzako irekita egon da eta bisita gidatuak eskaini dira doan; 2022an 3.242 bisitari egon dira (2021ean baino % 16 gehiago).

**2.2 ekintza. Monumentu megalitikoak (trikuharriak, tumuluak eta menhirrak) eta haitzuloak ikertzeko eta kontserbatzeko proiektuak:**

Honako proiektu hauek nabarmentzen dira:

- **Arabako historiaurreko haitzulo dekoratuak.**Kantabriako Unibertsitateko Diego Garatek zuzendutako proiektuaren lehen fasea amaitu da. Arabako Lurralde Historikoko haitzulo edo harpeko historiaurreko 8 aztarnategi aztertu dira, Eusko Jaurlaritzak kalifikatutakoak (Solacueva, Lazaldai, Los Moros, Liziti, Pico Corral eta Yurdinas II) edo babesik gabekoak (Orau eta Socuevas de San Miguel).

- Atariko emaitzak oso interesgarriak eta etorkizun handikoak dira, baina datazio eta analisi fase berriak beharko dituzte.

- **Lerongo harratea.** Diego Garate (UCAN) buru



oeste de la muralla; el manual de conservación del *macellum*; se han efectuado trabajos de limpieza de vegetación; y acondicionamiento del área de aparcamiento.

- Interpretación: se ha concluido, y hecho pública, la memoria del *Plan Director 2010-2020* en formato digital y se han realizado diversas ilustraciones para comprender mejor las estructuras arqueológicas existentes.

- Difusión y programa social: se ha redactado un plan de comunicación para el yacimiento y se ha creado una nueva imagen de marca; se ha desarrollado un proceso de participación ciudadana para mejorar la imagen del yacimiento en las poblaciones del entorno y mejorar su identificación; se han desarrollado diversas acciones divulgativas entre la población de esos núcleos; y se han renovado los recursos interpretativos y mejorado el espacio de acogida.

A lo largo del año, además, se han mantenido la apertura al público y la oferta de visitas guiadas concertadas gratuitas, con lo que los visitantes recibidos en 2022 han sido 3.242 (16 % más que en 2021).

**Acción 2.2. Proyectos de investigación y conservación de monumentos megalíticos (dólmenes, túmulos y menhires) y cuevas:**

Destacan los siguientes proyectos:

- **Cuevas decoradas prehistóricas de Álava.** Se ha concluido la primera fase del proyecto dirigido por Diego Garate, de la Universidad de Cantabria. Se han analizado 8 yacimientos prehistóricos en cueva o abrigo decorados del Territorio Histórico de Álava, calificadas por el Gobierno Vasco (Solacueva, Lazaldai, Los Moros, Liziti, Pico Corral y Yurdinas II) o sin protección (Orau y Socuevas de San Miguel).

- Los resultados preliminares son muy interesantes y prometedores, pero requerirán de nuevas fases de datación y análisis.

- **Portillo de Lerón.** Además, el mismo equipo

duen talde berak azterketa espezifiko bat egin du Valderejoko parkeko harpe horretako motibo piktoriko parietalen kontserbazio egoerari buruz. Motibo horien degradazio bizkorrak eta beste zenbait ezaugarrik zalantzan jartzen dute hasiera batean zehaztutako esleipen kronologikoa. Etorkizunerako bilakaeraren jarraipena egitea proposatu dute.

- **San Migeleko tumulua edo Las Carboneraseko tumulua (Matura, Barrundia):** Javier Ordoñok (Arkikus) premiazko esku hartzea egin zuen 2022/07/11ko sutearen ondorioz kiskalitako lur estaldura eta geozuntza kentzeko, lur estalki berria eta geozuntza ordezteko, monumentuaren fotogrametria aztertzeko eta SOTek egindako lan geofisikoak gainbegiratzeko. Emaitza ona izan zen.

**2.3 ekintza. Esku hartzeak kategoria bereziko edo ertaineko zona arkeologikoetan**

Jarduketa hauek nabarmentzen dira:

- **La Hoyako herrixka:** Arkeologia Museoko talde teknikoak berak, bere garaian Joan Santacanaren taldeari enkargatutako proposamenean oinarrituta, ibilbide orri bat egin du aztarnategiaren kontserbazio eta bisita baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren jarduketei buruz.

  Diziplinarteko laguntzaile talde bat osatu da lehen fasea egiteko. Horiek arduratuko dira aztarnen dokumentazio arkeologikoa egiteaz, dokumentazioa eta bibliografia berrikusteaz, dokumentazio geometrikoa eta fotografikoa osatzeaz, eta aztarnategia eta bertan kontserbatutako esteletako batzuk garbitzeko lanak egiteaz.

  Gainera, audiogidetako panelak ordeztu dira eta kartel zaharkituak hobetu dira.

  Hala eta guztiz ere, 4.979 bisitari jaso dira (2021ean baino % 13 gutxiago), eta horrek erakusten du beharrezkoa dela ahalegina egiten

liderado por Diego Garate (UCAN) ha realizado un análisis específico del estado de conservación de los motivos pictóricos parietales de ese abrigo del parque de Valderejo, que presentan una acelerada degradación y diversas características que cuestionan su atribución cronológica original. Proponen realizar un seguimiento de su evolución a futuro.

- **Túmulo de San Miguel o de las Carboneras (Maturana, Barrundia)**: la intervención de urgencia realizada por Javier Ordoño (Arkikus) consistió en retirar el revestimiento de tierra y geotextil calcinados por el incendio de 11/07/2022, sustitución de nueva cubierta de tierra y geotextil; y realizar el estudio de fotogrametría del monumento y supervisión de los trabajos geofísicos realizados por SOT, con resultado satisfactorio.

**Acción 2.3. Intervenciones en zonas arqueológicas de categoría especial y media**

Destacan la actuación en el:

- **Poblado de La Hoya**: El propio equipo técnico del Museo de Arqueología ha elaborado, a partir de la propuesta encargada en su día al equipo de Joan Santacana, una hoja de ruta sobre las actuaciones necesarias para mejorar las condiciones de conservación y visita del yacimiento.

  Se ha formado un equipo interdisciplinar de colaboradores para llevar a cabo la primera fase que se encargarán de realizar la documentación arqueológica de los restos y de elaborar una revisión de la documentación y de la bibliografía, de completar la documentación geométrica y fotográfica, así como efectuar trabajos de limpieza del yacimiento bajo control arqueológico y de algunas de las estelas allí conservadas.

  Además, se han sustituido los paneles de las audioguías y se ha mejorado la cartelería obsoleta.

  Pese a todo, el número de visitantes recibidos ha sido de 4.979 (un 13 % menos que en 2021), lo que demuestra la necesidad de continuar los

jarraitzea aztarnategiaren kultura eskaintza hobetzeko.

**2.4 ekintza. Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzatutako kontsolidazio eta balioztatze proiektuak**

- **Kuartangoko trikuharriak**: trikuharrien balioa nabarmentzeko proiektua amaitutzat ematea lortu da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa izan da, bai eta Kuartangoko Udalaren laguntza ere, proiektuaren sustatzaile ofiziala baita, AFArekin batera.

  Hala ere, eguraldi txarra dela eta, oraindik ezin izan dira obrak amaitu, ezta seinale berriak jarri ere.

- **Arkaiako terma erromatarrak**: aurrien balioa nabarmentzeko proiektua amaitutzat ematea lortu da, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoari esker eta AFArekin batera proiektuaren sustatzaile ofiziala den Arkaiako Administrazio Batzordearen laguntzari esker. Hauek izan dira egindako ekintza nagusiak: itxitura hesia eta baskula eraikina kentzea; iparraldeko indusketa arkeologikoa; egitura arkeologikoak kontsolidatzeko hainbat lan; eremu libreak lorategiz hornitzea; eta seinale eta baliabide didaktiko berriak jartzea.

**2.5 ekintza. Natura ondarearen inguruko azterlanak eta proiektuak**

Arabako Natura Zientzien Museoan hainbat material paleontologikori buruzko ikerketa jarduera garatzen jarraitu da, Urizaharreko anbar piezak barne.

**2.6 ekintza. Kultura ondasunak mantentzea eta garbitzea**

Aurreko urteetan bezala, bi garbiketa kanpaina egin dira: bata uztailaren amaieratik abuztuaren hasierara, eta bestea urrian. Lan guztiak kontrol arkeologikoaren pean egin dira.

**3. HELBURUA. Arabako ondare arkeologiko eta paleontologikoari buruzko foru**



esfuerzos para mejorar la oferta cultural del yacimiento.

**Acción 2.4. Proyectos de consolidación y puesta en valor cofinanciados con el Gobierno Vasco**

- **Dólmenes de Kuartango**: se ha conseguido dar por concluido el proyecto de puesta en valor de la estación dolménica para el que se ha contado con la colaboración económica del Gobierno Vasco y al apoyo del Ayuntamiento de Kuartango, promotor oficial del proyecto, junto a la DFA.

  Sin embargo, las condiciones meteorológicas adversas no han permitido aún concluir las obras ni la instalación de la nueva señalética.

- **Termas romanas de Arkaia:** se ha conseguido dar por concluido el proyecto de puesta en valor de las ruinas gracias a la colaboración económica del Gobierno Vasco y al apoyo de la Junta Administrativa de Arkaia, promotor oficial del proyecto junto a la DFA. Las principales acciones llevadas a cabo han sido la retirada de la valla de cierre y del edificio de la báscula; la excavación arqueológica de la zona norte; los diversos trabajos de consolidación de estructuras arqueológicas, el ajardinamiento de las zonas libras y la instalación de nueva señalética y recursos didácticos.

**Acción 2.5. Estudios y proyectos de Patrimonio Natural**

Se ha continuado desarrollando la actividad investigadora en el Museo de Ciencias Naturales de Álava sobre diverso material paleontológico, incluidas las piezas de ámbar de Peñacerrada.

**Acción 2.6. Mantenimiento y limpieza de Bienes Culturales**

Como en años anteriores se han realizado dos campañas de limpieza, una entre finales de julio y principios agosto, y la otra en octubre. Todos los trabajos se han efectuado bajo control arqueológico.

**OBJETIVO 3. Apoyar a proyectos de promoción no foral sobre patrimonio**

**sustapenez kanpoko proiektuei laguntza ematea**.

Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren helburu garrantzitsuetako bat da, eta, zalantzarik gabe, ikerketa arkeologikoa garatzen eta Arabako kultura ondarea ezagutzen laguntzen du.

**3.1. ekintza. Ikerketa arkeologiko edo paleontologikoko proiektuei laguntza ekonomikoa ematea.**

Laguntza ekonomikoa ematea Arabako ikerketa arkeologiko eta paleontologikoko proiektuei, baldin eta pertsona edo ikerketa taldeen ekimen partikularrari erantzuten badiote.

**3.2. ekintza. Arabako kultura ondareari buruzko ikerketa zientifikoak zabaltzea eta argitaratzea.**

Araban kultura ondareari buruzko ezagutza zabaltzeko beste tresna giltzarri bat ikerketa lanak eta indusketen memoriak argitaratzea da. Nabarmentzekoa da Iruña-Veleia 2010-2020ko Plan Zuzentzailearen memoria formatu digitalean argitaratu izana.

**3.3. ekintza. Aztarnategi eta monumentu arkeologikoen zabalkundea eta hedatzea.**

Arabako Lurralde Historikoko ondare arkeologikoa bisitatzea eta ezagutzea errazteko beste jarduketa garrantzitsuetako bat da.

Norabide seinaleak instalatzean eta hainbat formatutako informazio panelak instalatzean datza. Oro har, panel horiek AFAren webgunean dagoen informazio gehigarriarekin osatzen dira.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Oro har, esan daiteke 2022ko ekitaldirako hasieran aurreikusitako helburuak behar bezala lortu direla, baina 2023an ekingo zaien zenbait gai amaitu gabe geratu dira.

Jarraian, xehetasun handiagoz azaltzen da nola



**arqueológico y paleontológico de Álava.**

Constituye, también, otro de los objetivos importantes del Servicio de Museos y Arqueología y contribuye, sin duda alguna, al desarrollo de la investigación arqueológica y al conocimiento del patrimonio cultural alavés.

**Acción 3.1. Apoyo económico a proyectos de investigación arqueológica o paleontológica.**

Apoyo económico a proyectos de investigación arqueológica y paleontológica de Álava que responden a iniciativa particular de personas o equipos investigadores.

**Acción 3.2. Difusión y publicación de investigaciones científicas sobre patrimonio cultural de Álava.**

Otro de los instrumentos claves para la difusión del conocimiento sobre patrimonio cultural en Álava es la publicación de trabajos de investigación y memorias de excavaciones. Destaca la edición en formato digital la *Memoria del Plan Director de Iruña-Veleia 2010-2020*.

**Acción 3.3. Difusión y divulgación de yacimientos y monumentos arqueológicos.**

Es otra de las actuaciones relevantes para facilitar la visita y el conocimiento del patrimonio arqueológico del Territorio Histórico de Álava.

Consiste tanto en la instalación de señalética direccional como en la instalación de paneles informativos de diverso formato, que generalmente son complementados con información adicional albergada en la página web de DFA.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

En general se puede afirmar que los objetivos previstos inicialmente para el ejercicio de 2022 se han alcanzado de forma satisfactoria, aunque han quedado algunas cuestiones pendientes de conclusión que se afrontarán en 2023.

A continuación, se expresa su ejecución con mayor

gauzatu den.

**1. HELBURUA Arabako ondare arkeologikoa eta paleontologikoa kudeatzea**

**1.1 ekintza. Arabako Jarduera Arkeologiko eta Paleontologikoen Araudi berria idaztea**

*1.1.1. Arabako Jarduera Arkeologiko eta Paleontologikoen Araudi berria idaztea*

Dokumentuaren lehen zirriborroa eginda dago, baina egokitzapen juridikoaren zain dago. 2023an onetsi beharko da.

**1.2 ekintza. Ondare arkeologiko eta paleontologikoa kudeatzeko txosten teknikoak egitea.**

*1.2.1. Eragin arkeologikoko txostenak*

Hainbat txosten egin dira, **480 espediente** direla eta: hirigintza espedienteak, ingurumen espedienteak, obra lizentziak, birgaitzeak, errepide hobekuntzak, linea elektrikoak, ur hornidura, ureztaketa, plan hidrologikoak, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, lurralde planak, bide adarrak eta seinaleak, bai eta babes arkeologikoko eremuetako edo horrelakoen gaineko kontsultak eta askotariko gorabeherak ere.

*1.2.2. Proiektu arkeologikoak baimentzea*

Beharrezko baimenak aztertu eta izapidetu dira **120 jarduketa arkeologikorako** (prospekzioak, zundaketak, indusketak, obraren kontrolak eta altxaeren irakurketak). Jarduketa horiek zenbait unibertsitate, enpresa, elkarte eta erakunderi atxikitako ikertzaileen proiektuen parte izan dira (programatutakoak), edo era guztietako obrek eragindako afekzioen ondoriozkoak (prebentziozkoak edo aringarriak). Aurreko urteetan baimendutako jarduketa arkeologikoen txostenak eta memoriak ere aztertu dira.

**1.3 ekintza. Jarduketa arkeologikoen kostuaren % 50eko dirulaguntzak kudeatzea**

6/2019 Legearen 67. artikuluaren arabera, Arabako

grado de detalle.

**OBJETIVO 1. Gestionar el Patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava**

**Acción 1.1. Redacción de un nuevo Reglamento de Actividades Arqueológicas y Paleontológicas para Álava**

*1.1.1. Nuevo Reglamento de Actividades Arqueológicas y Paleontológicas*

Está elaborado un primer borrador del documento, que está pendiente de adaptación jurídica, y deberá ser aprobado a lo largo de 2023.

**Acción 1.2. Emisión de informes técnicos de gestión del patrimonio arqueológico y paleontológico.**

*1.2.1. Informes de afección arqueológica*

Se han informado **480 expedientes** urbanísticos, medioambientales, licencias de obras, rehabilitaciones, mejoras de carreteras, líneas eléctricas, abastecimientos de agua, regadíos, planes hidrológicos, plan foral de obras y servicios, directrices de Ordenación del Territorio, Planes Territoriales, desvíos de caminos y señalizaciones, así como consultas e incidencias varias en o sobre zonas con protección arqueológica.

*1.2.2. Autorizaciones de proyectos arqueológicos*

Se han analizado y tramitado las autorizaciones pertinentes para **120 actuaciones arqueológicas** (prospecciones, sondeos, excavaciones, controles de obra y lecturas de alzados) que han formado parte de proyectos de investigadores adscritos a universidades, empresas, asociaciones e instituciones varias (las programadas), o derivadas de distintas afecciones por obras de toda índole (las denominadas preventivas o paliativas). De igual manera, se han revisado los informes y memorias de actuaciones arqueológicas autorizadas en años anteriores.

**Acción 1.3. Gestión de subvenciones del 50% del coste de actuaciones arqueológicas**

El artículo 67 de la Ley 6/2019 obliga a la DFA a

Foru Aldundiak ondasun babestuetan eta ustezko gune arkeologiko eta paleontologikoetan legezko aginduz gauzatu behar diren jarduketa arkeologikoen kostuaren % 50 ordaindu behar die bai partikularrei bai enpresei.

*1.3.1. Izapidetutako jarduketa arkeologikoen kostuaren % 50eko dirulaguntzak*

Guztira zortzi espediente izapidetu dira, bost partikularrenak eta hiru enpresenak.

*1.3.2. Izapidetutako jarduketa arkeologikoen kostuaren % 50 esleitzeko dirulaguntzetan inbertitu den aurrekontuaren ehunekoa.*

Partikularrentzat aurrekontuan aurreikusitako guztizkoaren % 98,87 gastatu da, eta enpresentzat aurreikusitakoaren % 67,83 (hau da, batez beste % 83,35).

**2. HELBURUA Ondare arkeologikoa eta paleontologikoa ikertzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko AFAren proiektu propioak bultzatzea eta sustatzea**

AFAk kultura ondasun arkeologikoak, bereziki kategoria berezikoak, kontserbatzeko eta zabaltzeko zuzenean sustatzen dituen proiektuak.

**2.1 ekintza. Iruña-Veleia. 2010-2020 Plan Zuzentzailea.**

*2.1.1. Iruña-Veleiako 2010-2020 Plan Zuzentzailearen emaitzen azken memoria*

Plan Zuzentzailearen azken memoria amaitu eta aurkeztu da, eta formatu digitalean argitaratu da (www.araba.eus).

*2.1.2. Etorkizuneko jarduketen proposamena*

Aztarnategian modu globalean jarduteko lehen proposamena idatzi da, 2022-2025 aldirako.

**2.2 ekintza. Monumentu megalitikoak (trikuharriak, tumuluak eta menhirrak) eta haitzuloak ikertzeko eta kontserbatzeko proiektuak:**

*2.2.1. Garatutako proiektuak eta aztertutako*



satisfacer, tanto a particulares como a empresas, el 50% del coste de las actuaciones arqueológicas que deban ejecutar por prescripción legal en bienes protegidos y zonas de presunción arqueológica y paleontológica.

*1.3.1. Subvenciones del 50% del coste de actuaciones arqueológicas tramitadas.*

Se han tramitado un total de ocho expedientes, de los que cinco han correspondido a particulares y tres a empresas.

*1.3.2. Porcentaje del presupuesto invertido en subvenciones del 50% del coste de actuaciones arqueológicas tramitadas.*

Se ha gastado un 98,87 % del total presupuestado para particulares y el 67,83 % de lo previsto para empresas (lo que supone un porcentaje medio del 83,35 %).

**OBJETIVO 2. Impulsar y promocionar proyectos propios de DFA de investigación, conservación y difusión del patrimonio arqueológico y paleontológico**

Actividad en proyectos que promueve directamente la DFA para la conservación y difusión de Bienes Culturales arqueológicos, especialmente los de Categoría Especial.

**Acción 2.1. Iruña-Veleia. Plan director 2010-2020.**

*2.1.1. Memoria final de resultados del Plan director de Iruña-Veleia 2010-2020*

Se ha concluido y presentado la memoria final del Plan Director, y se ha hecho pública en formato digital (www.araba.eus ).

*2.1.2. Propuesta de actuaciones futuras*

Se ha redactado una primera propuesta de actuación global para el yacimiento con un horizonte temporal 2022-2025.

**Acción 2.2. Proyectos de investigación y conservación de monumentos megalíticos (dólmenes, túmulos y menhires) y cuevas:**

*2.2.1. Proyectos desarrollados y yacimientos*

*aztarnategiak*

Hiru proiektu garatu dira (historiaurreko haitzulo dekoratuak; Lerongo harratea, Gaubean; eta San Migeleko tumulua, Maturan), eta guztira 10 aztarnategiri eragin diete.

**2.3. ekintza. Esku hartzeak kategoria bereziko edo ertaineko zona arkeologikoetan**

*2.3.1. Kategoria bereziko edo ertaineko zona arkeologikoak*

La Hoya: herrixkaren aurriak kontsolidatzeko eta balioesteko aurretiazko azterlanak.

**2.4. ekintza. Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzatutako kontsolidazio eta balioztatze proiektuak**

*2.4.1. Kuartangoko trikuharriak. Dirulaguntza izenduna*

Dirulaguntza izapidetu da eta lanak amaitutzat eman dira, nahiz eta gairen bat egiteke geratu.

*2.4.2. Arkaiako terma erromatarrak. Dirulaguntza izenduna*

Dirulaguntza izapidetu da eta lanak amaitutzat eman dira, nahiz eta gairen bat egiteke geratu.

**2.5 ekintza. Natura ondarearen inguruko azterlanak eta proiektuak**

Urizaharreko anbar piezetan dagoen material paleontologikoari buruzko ikerketa jarduera garatzen jarraitu da.

*2.5.1. Arabako Natura Zientzien Museoko Bildumari erreferentzia berriak gehitzea.*

81 sarrera berri antzeman dira, eta horietatik 72 ale berriei dagozkie; beraz, gaur egun 259 ale daude Museoko anbar bilduman.

**2.6. ekintza. Kultura ondasunak mantentzea eta garbitzea**

*2.6.1. Eragindako aztarnategi arkeologikoen*



*analizados*

Se han desarrollado tres proyectos (las cuevas decoradas de cronología prehistórica; el Portillo de El Lerón, en Valdegovía; y túmulo de San Miguel en Maturana) que afectan a un total de 10 yacimientos.

**Acción 2.3. Intervenciones en zonas arqueológicas de categoría especial y media**

*2.3.1. Zonas arqueológicas de categoría Especial o Media intervenidas.*

La Hoya: estudios previos para la consolidación y puesta en valor de las ruinas del poblado.

**Acción 2.4. Proyectos de consolidación y puesta en valor cofinanciados con el Gobierno Vasco**

*2.4.1. Dólmenes de Kuartango. Subvención nominativa*

Se ha tramitado la subvención y se dan por concluidos los trabajos, pese a quedar alguna cuestión pendiente.

*2.4.2. Termas romanas de Arkaia. Subvención nominativa*

Se ha tramitado la subvención y se dan por concluidos los trabajos, pese a quedar alguna cuestión pendiente.

**Acción 2.5. Estudios y proyectos de Patrimonio Natural**

Se ha continuado desarrollando la actividad investigadora sobre material paleontológico presente en las piezas de ámbar de Peñacerrada.

*2.5.1. Incorporación de nuevas referencias a la Colección del Museo de Ciencias Naturales de Álava.*

Se han detectado 81 nuevas inclusiones de las que 72 corresponden a nuevos ejemplares con lo que en la actualidad existen 259 tipos en la colección de ámbar del Museo.

**Acción 2.6. Mantenimiento y limpieza de Bienes Culturales**

*2.6.1. Número de yacimientos arqueológicos*

*kopurua.*

32 elementu eta/edo aztarnategitan esku hartu da, aurreko urteetako ia berdinak.

**3. HELBURUA. Arabako ondare arkeologiko eta paleontologikoari buruzko foru sustapenez kanpoko proiektuei laguntza ematea**.

**3.1. ekintza. Ikerketa arkeologiko edo paleontologikoko proiektuei laguntza ekonomikoa ematea.**

*3.1.1. Lagundutako ikerketa proiektuak.*

Zortzi ikerketa proiektu finantzatu dira guztira, guztiak ere ondare arkeologikoari buruzkoak.

**3.2. ekintza. Arabako kultura ondareari buruzko ikerketa zientifikoak zabaltzea eta argitaratzea.**

*3.2.1. Argitalpen kopurua*

2022an, ez da *Memorias de Yacimientos Alaveses* serieko liburukirik argitaratu, baina formatu digitalean argitaratu da Iruña-Veleiako 2010-2020ko Plan Zuzentzailearen memoria.

**3.3. ekintza. Aztarnategi eta monumentu arkeologikoen zabalkundea eta hedatzea.**

*3.3.1. Seinaleztatutako aztarnategien kopurua*

Sorginaren Txabola trikuharriarentzat (Bilar) norabide seinaleak egin eta jartzea, eta eroritako seinalea kentzea. Nrabide seinale bat jartzea Iruña-Veleiako aztarnategian (Iruña Oka).



*afectados.*

Se ha intervenido sobre 32 elementos y/o yacimientos, prácticamente los mismos que en años precedentes.

**OBJETIVO 3. Apoyar a proyectos de promoción no foral sobre patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava.**

**Acción 3.1. Apoyo económico a proyectos de investigación arqueológica o paleontológica.**

*3.1.1. Proyectos de investigación apoyados.*

Se han financiado un total de ocho proyectos de investigación, todos ellos centrados en el patrimonio arqueológico.

**Acción 3.2. Difusión y publicación de investigaciones científicas sobre patrimonio cultural de Álava.**

*3.2.1. Número de publicaciones.*

En 2022, no se ha publicado ningún volumen de la serie *Memorias de Yacimientos Alaveses*, pero se ha editado en formato digital la *Memoria del Plan Director de Iruña-Veleia 2010-2020*.

**Acción 3.3. Difusión y divulgación de yacimientos y monumentos arqueológicos.**

*3.3.1. Número de yacimientos señalizados*

Producción y colocación de señales direccionales para el dolmen de La Chabola de la Hechicera (Elvillar) y retirada de señal caída y colocación de una señal direccional en el yacimiento de Iruña-Veleia (Iruña de Oca).